

[Zumaia](#)[Eskatu zeure hedabidea hemen jartzeko](#)[Blogariak](#)[Amatiño](#)[Joxe Aranzabal](#)[Argiako blogariak](#)[Berriako blogariak](#)[Jozulin](#)[Lander Arretxea](#)[Patxi Gaztelumendi](#)[Maria Gonzalez Gorosarri](#)[Markos Zapiain](#)[Mikel Iturria](#)[Gorka Julio](#)[alter eta ego](#)[Klig](#)[Eskatu zeure bloga hemen jartzeko](#)[Izena eman](#)[Pasahitza berreskuratu](#)

Donostiak merezi duen tokia eman dio sagardoari

2012-08-13 @ 16:47 [GAZE](#)

Joan den larunbatz geroztik dago zabalik, Donostiako **Katalunia Plazan** (Gros), GORENAKek antolatutako **lehenengo Sagardo Azoka**. Atzo izan zen, nolanahi ere, inaugurazio ekitaldi ofiziala, eta aurpegi ezagun ugari topatu genituen ekitaldian. **Juan Karlos Izagirre** Donostiako alkateak ere ez zuen hutsik egin.

Azoka, Aste Nagusiarekin bat eginez (abuztuaren 18a arte), **iluntzeko 19:00etatik aurrera** egongo da, egunero, zabalik. Bertaratzen direnek, euskal giroan murgildu, gastronomiaz gozatu (sagardotegi onenetan bezala) eta sagardoaren kultura barneratzeko bilgune polita dela diote.

Eskaintza gastronomikoari dagokionez, bi gunere bereizi dituzte antolatzaileek: zutik (pintxoak) edo eserita (razioak) afaltzeko mahaiak daude. Kartan, berriz, hamaika aukera: bakailao tortila, bakailaoa saltsan, txuleta... Egardia asetzeko, berriz, muztioa eta sagardoa; azken hau, **txotxetik** -lau sagardo upel jarri dira karpan- zein **botilatik** -punta-puntako **13 sagardo ezberdin** dasta daitezke-. "Sagardoaren euskal selekzioa" honako sagardotegi hauek osatzen dute: Andoingo **Gaztañaga**; Asteasuko **Sarasola**; Astigarragako **Alorrene**, **Gartziategi**, **Gurutzeta** eta **Zapiain**; Donostiako **Barkaiztegi**; Errenteriako **Egi-Luze**; Hernaniko **Altzueta**, **Olaizola** eta **Zelaia**; Ikaztegiako **Begiristain**; eta Tolosako **Isastegi**. Esan gabe doa, sukaldean ere, profesional bikainak ari direla, buru-belarri lanean.

Egur eta pintura usainari, txorizoarena, bakailaoarena, txuletaarena... eta batez ere, sagardoaren usaina gailendu zitzaizkion larunbatean. Giro polita sortu zen. Eta antolatzaileak pozik zeuden jendearen erantzunarekin. Pello Mendizabalek zuzendutako Eguzki-Lore otxoteak zuzeneko emanaldia eskaini zuen, eta atzo ere, inaugurazio ekitaldi ofiziala izanik, izan zen non aukeratu: Simon eta Aritz Goikoetxea txalapartariak, Antton Arruti eta Ion Belokiren trikitixa eta pandero saioa...

Oraindik Azokara gerturatu ez denarentzat, hona hemen datozen egunotako **zuzeneko ikuskizunen egitaraua**:

- Abuztuak 13, astelehena (19:00): Txalaparta eta kirikoketa emanaldia (Simon Goikoetxea, Agurtzane Irizar eta Ismene Tapia).
- Abuztuak 14, asteartea (20:00): Urko Menaia (ahotsa eta gitarra).
- Abuztuak 15, asteazkena (20:30): Igeldoko trikitilariak.
- Abuztuak 16, osteguna (21:00): Eguzki-Lore otxotea.
- Abuztuak 17, ostirala (20:00): Leire Zumeta (trikitixa eta ahotsa) eta Amaia Arza (panderoa eta ahotsa).
- Abuztuak 18, larunbata (20:00): Leire Zumeta (trikitixa eta ahotsa) eta Amaia Arza (panderoa eta ahotsa).

Hamahiru sagardogilek osatzen dute GORENAK marka. Sagardogile horiek guztiak, euren arteko ezberdintasunak alde batera utzi eta elkarrekin, talde lanean, aritu dira egunotan. Guztiek elkarrekin egin dute arraun. Gogotsu, ilusioz. Indarrak batu dituzte, eta pauso garrantzitsua da hori. Sagardoaren historian ez omen da sekula horrelakorik gertatu, eta hortaz, Donostiako I. Sagardo Azoka mugarri izan liteke, zentzu horretan.

Miguel Mari Lasa Sagardo Mahaiko presidentek, hala zioen, atzo, Azokaren inaugurazio ekitaldi ofizialean: "Gustura gaude. Azoka honekin, Donostiak, merezi duen tokia, merezi duen duintasuna eta protagonismoa, eman dio sagardoari, gure edari nazionalari.

Ikusteko dago jendearen aldetik zer-nolako harrera izango duen, baina antolatzaileen irudipena zera da: Sagardo Azokak arrakasta izango duela; bai aurten, eta baita datozen urteetan ere.

Txotx denboralditik kanpo ere... etorri eta gozatu GORENAK SSagardoaz!



0 0 Datsegizu?

Tweet 4

0

Like

0

Send

Iruzkina (Iruzkina ez)

Idatzi hemen zure iruzkina